



## SINKOPEA SINCOPE

Zure seme-alabak orain dauzkan sintoma eta zeinuak direla-eta, hauxe da diagnostikoa: **SINKOPEA**. Hortaz, epe labur batean, konortea murrizten zaio edo galdu egiten du, eta umeak ez dauka zutik egoterik; minutu batzuen buruan, umea bere onera etortzen da.

### NOLA IGARRI AHAL DIOT?

Batzuetan, egoeraren batek eragiten du sinkopea: zirrara handia, mina, odola ikustea, zutik jartzea (ohikoa izaten da ume eriondo bat txiza egitera altxatu eta zutik egiten duenean gertatzea), lepoa mugitu edo okertzea, eztula edo kaka egiteko esfortzua, etab.

Normalean, konortea galdu aurretik, umea konturatu egiten da gertatuko zaionaz: zorabiatu egiten da, objektuak urrundu edo biratzen dutelako sentsazioa, lausotuta ikusten du, zurbil jar daiteke, izerdi hotzarekin, goragaleekin, baita gorakoekin ere. Umeak sentsazio hau badauka, ez erortzen saiatuko da, etzanez. Gero, minutu gutxitan itzuliko da bere onera.

### ZER EGIN BERRIRO GERTATZEN BADA?

- Saiatu egin behar da jakiten zerk eragin duen, saihestu ahal izateko.
- Sinkopeak oso sarritan edukitzen dituzten umeek bakarrik behar dute tratamendu farmakologikoa. Pediatriak esango du horretarako espezialista baten laguntza behar ote den.
- Umea etzanda egon beharko da txarto jartzen hasten denean, edo erori egin bada, hankak goian dituela. Honela, erraztu egiten da odola bihotzera itzultzea, eta laster itzultzen da bere onera.
- Umea kalean badago edo etzan ezin daitekeen egoera batean, sinkopea saihesteko belaunak makurtu ditzake edo, hankak tolestuta, burua hauen gainera jaits dezake.
- Ez da komenigarria umea bainugelara bakarrik ixtea, zeren eta erortzen bada zaila izango baita laguntzea.

### ZERI JARRI BEHAR DIOT ARRETA?

Sintoma hauek agertuz gero, pediarrarenera edo larrialdietako zerbitzura jo beharko zenuke: toraxeko mina, arnasa hartzeko zailtasuna, palpitazioak (edo esfortzua eginda agertuz gero). Gainera, zaindu behar da ea ezohiko mugimendurik egiten duen (arraroak eta nahigabeak) edo asko kostatzen zaion bere onera itzultzea.

Su hijo ha sido diagnosticado de **SINCOPE**, por los síntomas y signos que ahora presenta. Un síncope es una disminución o pérdida de conciencia breve durante la que el niño no puede mantenerse de pie, recuperándose en pocos minutos.

### ¿COMO PUEDO RECONOCERLO?

A veces existe una situación que precipita el síncope como puede ser una emoción fuerte, dolor, ver sangre, ponerse de pie (un cuadro típico se da cuando un niño convaleciente durante tiempo se levanta para orinar y lo hace en posición de pie), mover o doblar el cuello, esfuerzos como la tos o la defecación, etc.

Generalmente antes de la pérdida de conciencia el niño se da cuenta de lo que va a ocurrir: se mareta, tiene sensación de alejamiento o giro de objetos, ve borroso, puede ponerse pálido, con sudor frío, náuseas e incluso vómitos antes de caer al suelo. Si el niño nota esta sensación, intentará evitar la caída recostándose, para no hacerse daño. Posteriormente, se recupera en pocos minutos.

### ¿QUE HACER SI OCURRE DE NUEVO ?

- Hay que tratar de reconocer las causas desencadenantes para evitarlas.
- Sólo los niños que presentan síncope muy frecuentemente precisan tratamiento farmacológico. Su pediatra valorará si es necesario la ayuda de un especialista para este fin.
- Cuando empieza a ponerse mal, o si ya se ha producido la caída, el niño deberá mantenerse tumbado, con las piernas en alto. De esta manera se facilita el retorno de la sangre al corazón y se produce la recuperación en poco tiempo.
- Si el niño se encuentra en la calle o en alguna situación en que no pueda tumbarse también puede intentar evitar el síncope poniéndose en cuclillas o flexionando las piernas agachando la cabeza sobre ellas para evitarlo.
- No es conveniente que se su hijo se encierre solo en el cuarto de baño, donde podría ocurrir una caída, siendo de esta manera difícil poder ayudarlo.

### ¿QUE DEBO VIGILAR?

Usted debería consultar con el pediatra o con nuestro servicio de urgencias si aparecen los siguientes síntomas: dolor torácico acompañante, dificultad respiratoria, palpitaciones o si aparece con el esfuerzo. También vigilaremos si presenta movimientos anormales (extraños e involuntarios) o si le cuesta mucho recuperarse.